

Inpaktuko eskaintza Belodromoko emanaldietan

SERGIO BASURKO

Ikusleei talka egiteko moduko programazioak *Karateka* eta *Muguruza FM 40 Tour* lanen mundu-estrenaldiak eta *Go!azen* telesailaren 13. denboraldiaren lehen atalaren emanaldia barne hartuko ditu.

Irailaren 21ean, *Karateka* emanngo da, Aritz Morenoren hirugarren film luzea. Pelikulak —aktore-zerrendan Andrea Ros, Patrick Criado, eta Ernesto Alterio dituenak—, konbentzio guztiak desafiatu zituen Sandra Sánchezen istorioa irudikatzen du, garai guztietako karatekarik onena bihurtu zen arte. Sandrak, bere entrenatzaile eta bizikideak gidatuta, ezinezko bidaia bati ekin zion: 39 urterekin urte olinpikoa konkistatzea, baita lortu ere, kirol batean non japoniarrak nagusi diren eta beteranoenak 30 urterekin erretiratzeko baitira.

Hiru egun beranduago, *Muguruza FM 40 Tour* lanaren txanda helduko da, Ander Merino Etxebesetek eta Fermin Muguruzak elkarrekin zuzendu duten dokumentalarena. Lehen aldiz eszenatoki batera igo eta lau hamarkada geroago, Muguruzak eskala handiko bere azken birari ekin dio: 40 urteko musika, konpromiso eta erresistentzia kulturala ospatzeko bidaia kolektiboa. Dokumental musikala honek ibilbide horren pultsua jasotzen du; kontzertu jendetsuak, kilometroak errepidean, bidean zehar egindako topaketak eta belaunaldiak zeharkatu dituen



Karateka filmak eta Fermin Muguruzaren azkenak Belodromoko barrunbeak astinduko dituzte.


bilakatuko da. Izan ere, filmaren emanaldia baino ordu eta erdi lehenago, Iruñeko Broken Brothers Brass taldearen musika-martxa antolatuta baita. Taldeak publikoa lagunduko du kalejiran, Anoetako Xanti tabernatik Belodromoko atariraino.

Muguruzaren inguruak adierazi duenez, “helburua, hein handi batean, Ferminen bere ibilbidean lagun izan duen komunitate-espirtua kalera eramatea da”. “Musika, elkargunea eta parte-hartzea medio, ondoren filma Belodromoko elkarrekin ikusteko”, zehaztu dute.

Irailaren 25ean, bestalde, Itziar Gómez Sarasolak berriz ere eramanngo du Belodromoko pantaila eta eszenatokitara ikus-entzule gazteenentzat horren gustukoa den *Go!azen* fenomeno. Telebistarako film gisa sortu bazen ere, telesailak jada hamahiru denboraldi ditu oraingoarekin.

energia partekatua, Kortatu eta Negu Gorriak taldeetatik hasi, gaur egungo bakarlari ibilbideraino.

Musikari irundarraren 40. urterren biraren gaineko dokumentalaren estreinaldia Belodromoaren ingurune osora hedatuko den ospakizun



Hegazti migratzaileen hegaldiari segika.

Hegoak ebaki banizkion...

S.B.

Aurten, hamahiru mila ikaslek baino gehiagok Benjamin Rennerrek eta Guylo Homsyrek zuzendutako *Migratzia*, *bidaia ahatezina* filmaren emanaldiaz gozatu ahaliko dute Belodromoan. Zinema eta zientzia uztartzeko jomuga izanik, Ikastetxeak Belodromoan ekimenak hegaztien mundura, animalia horien migrazio-ibilbideetara eta gure inguruko hezegune gogokoenetara hurbilduko ditu Gipuzkoako 80 bat ikastetxetako ikasleak. 2019az geroztik hona, Donostia Zinemaldian programatutako hitzordu hau DIPC Donostia International Physics Center eta Euskadiko Filmategiaren gerizpera antolatzen da.

Filma euskarara bikoiztuta emanngo da Belodromoko pantaila erraldoian, eta euskarazko azpitituluak izango ditu gorrentzat eta entzuteko zailtasunak dituzten pertsonentzat. *Migratzia*, *bidaia ahatezina* pelikula Mallard ahate-familiaren bidaia kontatzen digu. Egun batean, ahate migratzaileen familia bat beren urmaelara iritsiko da urrutiko tokietako

istorio zoragarriekin, eta Mallardtarak Jamaikara bidaiatzeko konbentzitu egingo dituzte, hara iritsi aurretik New Yorketik igarota.

Filmaren emanaldiarekin batera aurkezpen berezi bat eta hainbat ezusteko ere egingo dira. Edorta Unamunok —Urdaibaiko Biosfera Erreserban kokatutako Urdabai Bird Centerreko biologo eta ornitologoak— parte hartuko du. Hala, inguruko paduren garrantzia eta gure padurek hegaztien migrazio-ibilbideetan duten funtsezko zeregina azalduko du Unamunok, batez ere Europaren eta Afrikaren arteko joan-etorrietan. Era berean, gure parajeetako hegazti txikien migrazioak nola aztertzen diren ezaugaraziko digute.

Azkenik, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko RSAIT Robotika eta Sistema Autonomoen Ikerketa Taldeko Elena Lazkanok gidatutako Pepper robot sozialak ezin zuen kale egin eta berriz izango da urteroko hitzordu honetan. Ohi bezala, izan ere, tandem xelebrea osatuko baitu Ugaitz Alegria aurkezlearekin batera haurrei zuzendutako festa jendetsu honetan.

CINEMA — do — BRASIL

BRAZIL IN THE SPOTLIGHT. DISCOVER OUR CINEMA.



www.cinemadobrasil.org.br
info@cinemadobrasil.org.br

ORGANIZED BY



PROMOTED BY



